



Getxo

bizi ezazu

Errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko laguntzak onartzea

Euskararen jakite-maila eta erabilera sustatzeko diru-laguntzen 2020ko deialdiaren oinarriak onartu ditu Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzak, 2020ko ekainaren 9ko 155 zenbakidun ebazpenaren laburpena. Deialdi honek ondorengo diru-laguntza ildoak jasotzen du:

Errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko laguntzak onartzea. DBNS (Identif.): 510108.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat etorrira, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi izanez gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1.- Helburua

Errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko laguntzak onartzea.

2.- Zenbatekoa

2020rako, diru-laguntza hauetarako 7.000 euroko gastua onartu du Getxoko Udalak.

3.- Epeak

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2019ko abenduaren 31ra arte (barne).

Getxon, 2020ko ekainaren 11n.